

## **Azaroaren 29a (1976 – 2020)**

*Gaur, Jose Maria Arizmendiarieta jaunaren heriotzaren 44. urteurrena ospatuko dugu eta haren pentsamendu batzuk gogoraraziko ditugu.*

*Gizarte eraldaketa, hezkuntza, etorkizuna, parte hartzea eta elkartasuna bezalako balioei buruzko hausnarketak dira. Bere pentsamenduaren berezko balioak dira, krisi eta ziurgabetasun garai hauetan indarrean jarraitzen dutenak.*

### **Pertsona:**

*Arazo ekonomiko, politiko eta sozial guztiak, azken finean, **gizakiaren** arazoa baino ez dira. p017*

*Lehenengo **gizakiak** eta, ondoren, **kooperatibak**. p023*

*Zer da gizakia? Izaki ez perfektu bat. Hobetu daitekeen izaki bat. **Eraldatzea**, eta ez begiratzea, helburu duen izaki bat. Nork bere burua eraldatzea, inguruan duena eraldatzea. p040*

*Gure gaurko mundu honetako antzokiko besaulki patioan esertzera gonbidatzen zaitut. Berehala ohartuko zara, jokalekua aktorez beteta dagoen arren, oso ikusle gutxi dituzula inguruan; gutxi izan dute adorea eszena utzi eta so gelditzeko, **pentsatzeko**...*

*Zaila da, beldurra ematen digu geure buruaren aurrean jartzeak, eta saihestezinak diren errealitate batzuen aurrean jartzeak... errazagoa eta erosoagoa da ebasioa, norberari ihes egitea, bizitzaren ibaian alaiki murgiltzeko. Ez gara ohartzen, **pentsatzeari** uzten diogun heinean, izateari uzten diogula. C33- 1963/05*

### **Formazioa - hezkuntza:**

*Norbanakoen **formazio** moralak gizartearen **formazioaren** oinarria izaten jarraitu behar du. p129*

***Hezkuntza** da ordena sozial, humano eta justu berri baten sustapenerako oinarri naturala eta ezinbestekoa. p191*

*Gizon edo emakume jaiotzen gara (pertsona), ez ofizio batekin. Izateko, ikasi egin behar dugu. Halaber, ez gara **kooperatibista** jaiotzen, horretarako heldutasuna behar dugu, sozialak izan, ez egoistak. Hezkuntzarekin eta bertutearen praktikarekin lortuko dugu.*

*C1-1960/09*

### **Etorkizuna - aurrerapena:**

*Inguruabarrak, esan dugunez, ez dira ez onak ez txarrak, bakoitzak nahi duena izango dira. **Aukerak** beraietaz baliatzea erabakitzen duenarentzat existitzen dira. p111*

***Aurrera egitea** ez da gehiago eskuratzea, gehiago izatea baizik. p146*

*Onak izateko **betebeharra** zoriontsuak izateko **eskubidea** baino premiazoagoa da. p157*

*Arrangurarik ez, **ekintzak** bai. p231*

*Ideala, zalantzarik gabe, handia da, mugarik gabea: ideia benetan iraultzailea. Mundu berri jaiotzen ari da, gaur egungo joera nabarmena da **gizarte berri** baterantz jotzea, justuago, humanoago baterantz, eta joera horretan kooperatibistok oso rol garrantzitsua dugu jokatzeko. C21-1962/05*

*Dilema zaila, gure gizarteari aurkezten zaiona. Kontsumoaren **austeritaterik** gabe benetako garapenik ez dela egongo jakitea, eta konforterako nahia unibertsal bihurtu den garai batean bizi behar izatea, zeinean gutxik baitute horiei entzungor egiteko eta inguruko korrontearen aurka joateko behar besteko indarrak. C37- 1963/09*

### **Gizartea - komunitatea:**

*Heldutasunaren ezaugarria da eginkizun kolektiboan **parte hartzea** eta integratzea. p289*

***Mugimendu kooperatiboa** gertaera igarokorra izango da baldin eta periferia sozialera hedatzen eta garatzen ez bada, eta, ondorioz, hezkuntzaren arloan eta harreman sozial zein ekonomikoen arloan errotzen ez bada. p545*

### **Elkartasuna:**

*Agintariak eta kualifikazio handiko langileak, hots, gurdi kooperatiboa gidatzen dutenak, lankidetzaren bidez honako helburu hau lortzearen arduradun nagusiak dira: enpresaren esparruan elkartasunaren zentzua txertatzea, inor behartu gabe, soilik doktrinazko edukiaren eta egungo lan munduak eskatzen duen justiziaren zentzuaren eraginez. p482*